

Gasteizen, 2017ko ekainaren 5ean

ZIRKULAR INFORMATIBOA:

***Baja-agiriak, baja luzatzeko agiriak eta alta-agiriak
Aldi Baterako Ezintasuneko (ABE) prozesuetan***

0. ABE-EKO PROZESU-MOTAK, USTEZKO IRAUPENAREN ARABERA

Aldi Baterako Ezintasuneko prozesuak lau motatan sailkatzen dira, batak ustez zenbat iraungo duen kontuan hartuta.

- 1.- Ustez, oso gutxi iraungo duten prozesuak: bost egun naturaletik beherakoak dira.
- 2.- Ustez, gutxi iraungo dutenak: 5 egun naturaletik 30era artekoak dira.
- 3.- Ustez, iraupen ertaina izango dutenak: 31 egun naturaletik 60ra artekoak dira.
- 4.- Ustez, asko luzatuko direnak: 61 egun naturalekoak, eta hortik gorakoak, dira.

Baja-agiria eta baja luzatzeko agiria egiten dituen sendagileari dagokio batak ustez zer iraupen izango duen erabakitzea, eta agiri horiek egiten dituen erabakiko du hori ere.

1. Hasierako baja-agiria.

Aldi baterako ezintasunaren baja-agiri medikoa langileari azterketa medikoa egin bezain pronto egingo da, batak zergatia dena dela ere.

Gaixotasun arrunten eta lanekoak ez diren istripuen kasuan, Osasun Publikoko Zerbitzu Medikoko sendagileak egingo du baja-agiri medikoa.

Baja medikoa lan-istripu batek edo laneko gaixotasun batek eragin badu, eta baja horren estaldura Gizarte Segurantzarekin lankidetzan diharduen mutua bati badagokio, mutuaren osasun-zerbitzuko sendagileak berak egingo du baja-agiri medikoa.

*Edozein kasutan, langileak enpresari hari dagokion baja-agiriaren kopia eman beharko **3 eguneko epean**, baja-agiri hori egin den egunetik zenbatzen hasita.*

2. Baja luzatzeko agiri medikoak.

Agiri horiek ere Osasun Zerbitzuko edo mutuako sendagileak egingo ditu, aldizkakotasun honekin:

- a) Ustez, oso gutxi iraungo duten prozesuetan: ez da baja luzatzeko agiririk egingo.
- b) Ustez, gutxi iraungo duten prozesuetan: baja luzatzeko aurreneko agiria 7 egun naturaleko epean egingo da, gehienez, baja-egunetik zenbatzen hasita, eta hortik aurrerakoak, berriz, 14 egun naturaletik behin.
- c) Ustez, iraupen ertaina izango duten prozesuetan: baja luzatzeko aurreneko agiria 7 egun naturaleko epean egingo da, gehienez, baja-egunetik zenbatzen hasita. Baja luzatzeko bigarren agiria eta hortik aurrerako guztiak, berriz, 28 egun naturaletik behin, gehienez.
- d) Ustez, asko luzatuko diren prozesuetan, hots, 61 egun naturalekoetan, eta hortik gorakoetan. Baja luzatzeko aurreneko agiria 14 egun naturaleko epean egingo da, gehienez, baja-egunetik zenbatzen hasita. Baja luzatzeko bigarren agiria eta hortik aurrerako guztiak, berriz, 35 egun naturaletik behin, gehienez.

*Langileak **baja luzatzeko agiri** bakoitza helarazi beharko dio enpresari **3 egun naturaleko epean**.*

3. Alta-agiri medikoa.

Aurretik aipatutako agiriak bezala, Osasun Zerbitzu Publikoko edo mutuako sendagileak egingo ditu alta-agiriak ere, azterketa medikoa egin ondoren.

*Langileak enpresari dagokion **alta-agiriaren kopia** helarazi beharko dio derrigorrez, **alta-agiria** egin eta **hurrengo 24 orduetan**.*

4. Ustez OSO GUTXI iraungo duten prozesuen berezitasunak.

Prozesu horietan soilik, baja- eta alta-agiriak aldi berean egingo ditu sendagileak. Bajarekin lotutako datuekin batera, altarekin lotutakoak eta altaren eguna adieraziko ditu idatziz. Kasu horietan, altaren eguna bajaren egun bera izan daiteke, bai eta hurrengo hiru egun naturaletako bat ere. Horregatik, ez da baja luzatzeko agiririk egingo.

Salbuespen gisa, sendagileak hasieran uste zuen epean langileak lan egiteko ahalmena berreskuratu ez duela ulertu, eta, horregatik, baja luzatzeko agiri bat egiten duenean, langile horrek, derrigorrez, **baja luzatzeko agiri hori helarazi beharko dio enpresari hura egin eta hurrengo 24 orduetan, hasierako baja-agiriarekin batera**.